

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

KOMUNIKAZIO BIDEAK

Gure bezeroekin komunikatzeko hainbat bide ezarri ditugu:

Kartelak jarriko ditugu kaletik, unibertsitatean batez ere. Unibertsitatean ikasten duten pertsonak ikusteko eta honela, haien kuriositatea pizteko, bertan helbidea eta kontaktu bideak zehaztuko dira, baita Leioan dagoen gaztegunetik jarriko ditugu hainbat kartel, han gazte ugari daudelako. Kafetegiaren telefono mugikor bat edukiko dugunez, telefonoa banatuko dugu hainbat gunetan, eta horren bidez, ofertak, mezuak edota horrelakoak bidaliko ditugu, gure bezeroak beti informatuta egoteko.

BANAKETA BIDEAK

Gure bezero mota zein izango den nahiko argi daukagu, batez ere unibertsitatean dauden gazteak edota irakasleak, baina batez ere gazteak. Lokalizazioari esker zehaztu ahal dugu zeintzuk izango diren gure bezeroak. Gure lokala, fisikoa izango da, eguneroko bizitzan erabili dezakezun denda bat? Goizean, arratsaldean edota jateko orduan erabili ahal den kafetegi bat zehazki.



Horregatik, interneten bidez, (instagram, gmail, twitter edota facebook-en bidez) iragarkiak, eskaintzak edota eguneroko menua publikatu ditugu eta horrela lortuko duguna, bezeroek harreman estuago bat izango da, bezero horien fideltasuna ere. Azken finean, hori da bilatzen ari garena, konfidantzako lokal bat bihurtzea eta unibertsitatean guztiak ezagutzea "Balu-Kafetegia"